

# GUDARIA

Karlistadako gudan gertatutakoa.

Patxi-guzur, karlistadako gudan, Gipuzkoako mendietatik zear ibili zan. Bein baten, sabeleko min apur bat be baeukala eta sopa beroa jatea ondo etorriko jakola eta... an mendi magalean ikusten zan baserrira joatea erabagi eban.

Urrunetik ikusi eban etxeko andrea, erropa zaarrez jantzita, arta jorran, erreka baztarreko soloan.

—Berari begiratuta ezin da pentsatu zopabero asko egiten jakingo dauanik —inoan bere arterako eta zantzo eginaz esan eutsan:

—Eup!! Gudari zintzo, «goseakileri» zopa beroa emoteko borondaterik bajeukona?

—Oba ez! «geutarrei» zopa beroa ez eze oilasko izter egosie be bai; sartu, sartu barrura eta jesarri sukaldeko «txisiluan», laster baten noa eta.

Sartu zan Patxi-guzur sutondora, iru-lau abarrez egindako «aingerusuari» putz egiten asi zan.

—Andra koitada onen itxurea ikusi ta... su onen «pentsuetan» dagoen saldea... ez dakit ba ganorazkoa izango bada —inoan Patxi-guzurrek bere barrurako.

Amabi barriak, baselizan, joten asi ziranerako etorri zan atsoa etxera.

—Gaur arrain zopa gozoa jango dok —Patxi-guzurreri esan eta maai ganean plater-sakona ipini eban; gero koilara bi eta urez betetako pitxarra ere ipini ebazan.

Esarri ziran, bakoitza albo banetan eta atsoak sutondoko lapikotxan egoana, plater sakonera atera eban.

Patxi-guzur adi egoan eta lapiko barruan zeozer gelditu zala konturatu zan. «Gero jateko arrankarie izango dok» —pentsatu eban.

Au esan, bestea kontau, astiro-astiro, orain zuk eta gero nik, plater-sakoneko «ur-bedeinkatua» itxurako «zopa» tristea jan eben.

—Gozo be gozo egon dona —esan eutsan

Patxi-guzurrek atsoari—. Orain arrankari apur bat... eta... neiko.

—Zer dinok? Arrankari apur bat, non jauk ba?

—Or, lapikotxan itzi don.

—Bai zera! Or jaukena erreka arri borobile dok. Arrankariek ezin joazak arrapatu eta arri orren ganean egoten dozaken lez... ba usaintxoia eta... koipea be gantzatuko jeutsiek eta... berorregaz egiten joat arrain-sopea. Gero, barrero errekan itziko joat eta biar... Ara ba zer gertatu jakon gure Patxi-guzurreri. Leen baino gose geiagogaz itzuli ei zan mendi tontorrera; ori bai, **SABELEKO MINA KENDUTA.** ■

*Irakurlea: Bibiñe Pujana -  
Andereñoa (Zeanuri)*